



OSAKIDETZAK BERE ALDE BAKARREKO ERABAKIEN IZAPIDE FORMAL HUTSA BIHURTU NAHI DU MAHAI SEKTORIALA

SATSEk, ELAk, LABek, SMEk, CCOOk eta UGTk adarjotzetzat jo dute gaurko Mahai Sektorialeko deialdi berria.

Duela 7 egun eskas, Osasuneko Mahai Sektorialeko kide diren sindikatu guztiek martxoaren 1erako deitutako bilerara ez joatea erabaki zuten, Osakidetzak haien aldarrikapenei eta eskaerei jaramonik egiten ez ziela ikusita.

Astebete geroago, Osakidetzak beste bilera bat deitu du, eta, gai-zerrendako puntu bakar gisa, aurreko bileran aztertu beharreko gaien artean sartu zituen 6 puntuetako bat sartu du; gainerakoak ezabatu ditu (eta azken momentuan bigarren bat sartu du, sindikatuen eskaerekin zerikusirik ez duena).

Gogora dezagun, aurreko bileraren edukia ikusita, SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek erabaki zutela bilerara ez joatea. Horregatik, Mahai Sektorialeko sindikatuek adarjotzetzat jotzen dute gaurko jasotako deialdia. Osakidetzak badaki, aurreko bilerako gai-zerrendako 6 puntuak ikusita, sindikatuek mahaira ez joatea erabaki bazuten, deialdi berriak, bakar bat barne, emaitza bera ekarriko duela. Planteamendu zentzugabe horrek zentzua du soilik Mahai Sektoriala Osasun Sailaren alde bakarreko erabakietarako izapide hutsa bihurtu nahi izatearen ikuspegitik: bilerarako deialdia egiten du, gaia Mahai Sektorialeko pasatzeko legezko izapidea betetzeko helburu bakarrarekin, bere alde bakarreko erabakiekin aurrera jarraitu ahal izateko.

Osakidetzako Zuzendaritzak eta Sailburuak ondo baino hobeto dakite zergatik ez diren joan Mahai Sektorialeko bileretara: benetako negoziatorik ez dagoelako eta existitzen ez den negoziazioa antzestu nahi dutelako. Ildo beretik, Mahaian berriz ere sindikatuak egoteko bete behar diren baldintzak ezagutzen dituzte ere.

Hala ere, eta azkenaldian egin duen bezala, Osakidetzak errealitateari bizkarra ematen jarraitzen du, eta gaurko beste bilera baterako deialdia egin du. Bilera horren edukia, berriz ere, ez da sindikatuen eskaeren araberrakoa. Kasu honetan, haratago doa eta aurreko pasa den astekoa existitu ez balitz bezala jokutzen du.

SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek uste dute une honetan ez dagoela Mahai Sektorialeko bilerara joateko beharrezko baldintzarik, Osakidetzak bizkarra ematen baitio benetako negoziatioari, akordioak lortzeko inolako borondaterik erakutsi gabe.

Euskal Herria, 2023ko martxoak 9.